



2021UDOS0008

Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2021/07/22

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 22/07/2021

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

**Zinegotziak: / Concejales:**

**EH-Bildu** Estibalitz Mujika Tolaretxipi  
Jon Zulueta Berastegi  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Julian López Aracama  
M<sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun  
Xabier Fondón Pajares

**PSE-EE** José Luis Verdasco Gutierrez  
Ascensión Parrón Peguero  
Petra Romero Pozo  
Oscar Mendo González

**EAJ-PNV** Alexander Huitzi Alfonso  
M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández  
Imanol Goenaga Egibar

**Elkarrekin Podemos** M<sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	<b>00000008</b>
Eguna	<b>2021/07/22</b>
Hasiera	<b>19.00</b>
Amaiera	<b>20.51</b>

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Pérez

**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:**Andoni Alvarez Lete  
Maria Jose Izagirre Iturzaeta**Gai Zerrenda:**

- 2021/06/28(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

**Xedapenak**

- 2021/8 zenbakiko kreditu aldatetaren espedientea.
- 7.16 eranskinaren aldaketa, jarduera fisiko eta kiroltako udal zerbitzuen tasak.
- Interes berezikoak inzendatzeko Ikastolak egingo dituen obrak (igogailua).
- Onartzea, behin betiko izaeraz, Andoingo Udaleko lanpostuen lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpeak proposamena.
- Onartzea, hasierako izaeraz, Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantza proposamena.

**Orden del Día:**

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 28/06/2021.

**Parte Dispositiva**

- Expediente modificativo de crédito número 8/2021.
- Modificación anexo 7.16 de las tasas por servicio municipal de actividad física y deporte.
- Declaración de interés especial de las obras a realizar por la Ikastola (ascensor).
- Aprobación con carácter definitivo, de la propuesta de Criterios para la constitución y gestión de bolsas de trabajo de los puestos del Ayuntamiento de Andoain.
- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de la ordenanza municipal reguladora de la convivencia ciudadana y del uso y limpieza viaria pública.



- |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>7. Andoingo ualari emango dizkion informatika zerbitzuak zehaztea zioekin IZFE S.A. Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearekin lankidetzaren hitzarmena onartzeko proposamena.</p> <p>8. Ikutza-Illaramendi hiriguneko izendegia onartzea.</p> <p>9. Sorabilla eta Leizotz auzoetako baserri eta etxe izendegia onartzea.</p> <p>10. Erroitx BMrekin Aiurri hedabidea argitaratzeko eta zabaltzeko 2020an sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatzea.</p> <p>11. Andoingo Udaleko oinarrizko mailako heziketa-zikloa emateko eskumena eskuordetzea</p> <p>12. 2021/06/23an Elkarrekin Podemos udal-taldeak aurkeztutako mozioa, pobrezia ezabatzeari buruz.</p> <p>13. 2021/07/09an Elkarrekin Podemos udal-taldeak aurkeztutako mozioa, aerosolei eta CO2 neurgailuei buruzkoa.</p> | <p>7.- Propuesta de aprobación del convenio de colaboración con IZFE. S.A. Sociedad Foral de Servicios Informáticos para determinación de los servicios informáticos que prestará al Ayuntamiento de Andoain.</p> <p>8.- Aprobación del nomenclátor del núcleo urbano de Ikutza-Illaramendi .</p> <p>9.- Aprobar el nomenclátor de caseríos y casas de los barrios de Sorabilla y Leizotz.</p> <p>10.- Prorrogar el convenio de colaboración suscrito en 2020 con Erroitx B.M. para la elaboración y publicación del medio Aiurri.</p> <p>11.- Aceptación de la delegación de la competencia para impartir el ciclo formativo de grado básico del Ayuntamiento de Andoain.</p> <p>12.- Moción presentada el 23/06/2021 por el grupo municipal Elkarrekin Podemos en relación a la erradicación de la pobreza.</p> <p>13.- Moción presentada el 09/07/2021 por el grupo municipal Elkarrekin Podemos en relación a los aerosoles y medidores de CO2.</p> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

**Kontrola**

14. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1104 zenbakidunetik 1350 zenbakidunera.
15. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 14.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1104 y la nº 1350.
- 15.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.**

---

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, guztioi eta mila esker gurekin izateagatik, 2021eko uztailaren 22an egingo dugun udalbatzarra honetan.

“Hola, buenas tardes y bienvenidos a todas y todos al pleno que vamos a celebrar hoy, 22 de julio de 2021.

“Azken udalbatzarretan esan bezala, lehenik eta behin, aipatzea, oraindik, Covid19 dela eta, zinegotziak ezin dugu guztiok elkarrekin egon eta beraz, publikoaren artean ere badira, baita ere, aipatzea bi zinegotzi falta direla, batetik, Andoni Alvarez jauna, oraindik aitatasun baja dela eta, ondorioz bere bozka Zulueta jaunarengan eskuorteduta du. Bestalde, Izagirre andrea ere bajan dago eta bere bozka, Goenaga jaunarengan eskuordetu du.

“Decía que, todavía por la situación de la Covid19, no es posible que estemos sentados todas y todos los concejales en la mesa y por ello, parte de ellos, todavía están sentados en el Pleno y comentar también, como ya lo hemos hecho en los dos últimos plenos que, el Sr. Alvarez está de baja por paternidad y ha delegado su voto en su compañero, el Sr. Zulueta y hoy coincide también que la Sra. Izagirre también está de baja y ha delegado su voto en su compañero el Sr. Goenaga.

“Hau guztia esanda, hasiera emango diogu gaurko udalbatzarrari.”



**1. 2021/06/28(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2021/06/28 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

**2. 2021/8 zenbakiko kreditu aldaketaren espedientea.**

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2021-KALD-000011-00) bidezko kreditu aldaketaren 2021/08 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzorde Irizpenemailea Batzorde Informatzaileak 2021.07.01ean emandako aldeko proposamena (EH Bildu ez eta besteak aldekoak)

Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2021.06.23an emandako aldeko proposamena (EH Bildu abstentzioa eta besteak aldekoak)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2020/08 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan izanik. Bertan adierazten dira aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeekin.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/07/13(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Kasu honetan, aipatzea kreditu gehigarria dela, 100.000 eurokoa. Batetik, gogoratuko duzue, Asistencia Técnica Bastero Kulturgunea partidaren kreditua aldatzea, 50.000 euro gehituko genuke partida horretan eta bestetik, Informática edo prozedura ekipoak partidari 50.000 euro gehituko genituzke.

“Decía que es una modificación de crédito que conlleva el aumento de 100.000 euros. Por un lado son 50.000 euros para la asistencia técnica de Bastero Kulturgunea y otros 50.000 euros, como inversión, para los equipos informáticos del ayuntamiento.”

Gaia eztabaidara jarri da lehenbizi, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Kreditu aldaketen kontuarekin nik uste dut esan duguna baino gehiago ezin dugula esan. Aurrekontua onartu genuen urtarrila amaieran, geroztik otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina eta uztailera plenoak egin ditugu eta azken sei horietatik, uste dut lauetan izan dugula horrelako puntu bat, beraz, ez gara argumentuetan errepikakorrak izango. Bakarrik, konstatazio moduan esan, argi dago 2021. urteko aurrekontua gaizki egin zela, hori uste dut aho batez baieztatu dezakegun ebidentzia bat dela, hainbeste kreditu aldaketekin, baino, gure ustez, badago agrabante moduan, nahita egin zela gaizki, hau da, kontuak borobildu eta partida asko aurkeztea izan zen lehentasuna, hau da, propaganda lehenetsi zen aurrekontu eraginkorrek edo errealak egin baino lehen.

“Bestalde, gogoratu nahi dugu, aurreko plenoetan esan genuela, eskatu genuela aurrekontuaren egoera batetik eta jaso genuen Kontuhartzailearen txostena eta bertan datu esanguratsuak daude, aurreko plenoan komentatu genituela eta bestetik, falta zitzaigun aurreikuspena. Aurreikuspena jaso dugu, parte bat, inbertsioen partidari zer aurreikuspen dagoen baino gastuen atalean ez da ezer pasa, beraz, ulertzen dugu, gaurkoa izan dela azken kreditu aldaketa, gastuen partidari dagokionez.

“Berrito ere esan nahi dugu, guretzat garrantzitsua delako, hainbeste aldaketa egin eta gero, ulergaitzagoa egiten zaigu begiratzea zergatik ez ziren gure proposamenak onartu, aurrekontu negoziazioan, esan nahi dut, horrelako mugimenduak aurreikusten baziren ere, gure partidak kontutan hartzea, uste dut, nahiko logikoa izango zela. Horrek, berriz ere, nabarmendu nahi dugu udal gobernuaren jarrera itxia, azkenean, bai informazioarekin, bai negoziazioarekin. Ematen zaigu informazioa minimoa, denbora legalean eta legeak esaten duen arabera, hortik kanpo, gauza gutxi. Gure artean, askotan esaten dugu, Zinegotzi Ahaldunen batek ahalko balu batzordea ez deitu, egingo luke baino, ez du aukera legalik horretarako eta, ezin du egin.

“Garbi dugu, funtzionamendua eta daramazuten dinamika guzti hau, guztiz legala dela, gure zerbitzu



juridikoek hori bermatzen dute, baina, andoaindarrentzako ez da egokia horrelako dinamikan ikustea udal gobernu. Momenturen batean eta berriro diogu, egunen batean beharko duzue gai garrantzitsu batean, gai sensibleren batean, aho batez onartu behar den programa, ekintza edo dena delakoa eta, zuen ohitura faltagatik eta orain arte daukazuten jarreragatik ez duzue jakingo ere nola hurbildu guregana negoziatzeko eta hitz egiteko.

“Hori iritsiko da eta laister egongo da puntu batean eta ikusteko gaude zein izango den zuen jarrera.

“Azken kreditu aldaketa honetan kontra bozkatuko dugu, batetik, kudeaketa ereduarekin ez gaudelako ados eta zuen jarrera itxia ere kontuan hartzeko, uste dugu udal dinamikak behar duenaren kontra ari zaretela eta hori nabarmendu nahi dugu.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik, bueno, aipatu nahiko nuke, nekatzen naizela beti berdina esan behar izatea, baina, bueno, ikasturte edo urte hasieran, aurrekontuak egin zirenean aurreikuspen batzuk egin ziren eta aurreikuspen horiek betetzen dira edo ez dira betetzen eta gobernu edo kudeaketa baten parte da, egokitzeko gaitasuna izatea ala ez, zehazki, gaur ekartzen duguna bozketara, adibidez, kulturari dagokionean, egokitzapen bat da, alegia, Bastero Kulturgunea irekita eduki behar da eta Bilduk eskatu du, zuzenki, herriko elkartei, herriko elkarte gastronomikoei erraztasunak eman behar zaizkiela, beraien batzarrak egiteko, erabilerak egiteko, herritarren zerbitzura jarri behar dela Bastero eta noski, horrek, kostu bat dauka.

“Kostu bat dauka, udal guztiaren departamentu desberdinek dituzten ekintza guztiak jaso dituenan, horrek, ordu horiek eta lan horrek prezio bat du eta udal gobernu talde honek egin du, adibidez, kulturaren aldeko apustu bat eta programazioa mantentzeaz gain, sektorea indartzeaz gain, jaso ditu, kasuan kasu, departamentu desberdinen ekintzak, bizilagunen partaidetza bilerak, elkarteen edo hirugarren batzuen bilerak, alegia, herritarrei erraztasunak emateko eta, horrek, prezio bat dauka.

“Ez genuela aurreikuspenik egiten? Zilegi da hori esatea. Horrela da, ez genuen asmatu baina, inork gutxi asmatu zezakeen urtarrilean, pandemiaren baitan egon ginen eta, zorionez, zorionez diot berriro ere, bueno, posible izan dugu, ekimen desberdinak martxan jartzea eta adibidez, kasu honetan, Bastero bezelako ekipamendu bat, herritarren zerbitzura jartzea, beraz, gaur aurkezten dugun modifikazioa, zehazki guzti hori ahalbidetzeko da. Bildu horren kontra baldin badago, esan dezala zergatik dagoen horren kontra, zeren, ondo dago Zulueta jaunak egin duen itzuliburu guzti hori, baina, iristen den azken puntua da, “gu honen kontra gaude”. Bueno, beraz, herritarrei ireki behar diegu Bastero bai ala ez?”

“Gaur aurkezten dugun kreditu aldaketak, produzio edo montai ahalbidetzeko partida bat da, beraz, horren kontra bagaude, errespetatzen dugu, baina zorionez eta, berriro diot, zorionez, aurreikuspen oker horiek edo ilun horiek ez dira hain okerrak izan, edo ez dira hain okerrak izan eta gobernu taldeak uste du, udal ekipamenduak, posible bada, herritarren eskura jartzea, horrela egingo dugu, horrela sinesten dugu eta horrela egingo dugu eta udazkenean berriro ere, egin beharko bada egingo dugu, ezin dugu horretan eskatimatu, izan behar dugulako, udalak izan behar du laguntzaile eta herriko elkarteek, elkarte gastronomikoei, kirol elkarteek, kultur elkarteek eskatzen badigute Bastero irekitzea, Bastero ireki beharko dugu eta hori ez da gratis eta, hori Zulueta jaunak soberan daki, beraz, gure aipamena, ondo dagoela, bere bozka ulertzen dugula baina, orduan esan dezala zeren kontra ari den bozkatzen eta kasu honetan ari da aurka bozkatzen herriko kultur ekipamendu bat gehiago irekitzearen edo gehiago zabaltzearen aurka. Azpimarratzekoa iruditzen zaigu eta asumituz, urtarrilean egindako aurreikuspenak ez dirala zuzenak izan? Ba, zorionez ez eta berriro diot, zorionez ez. Zorionez ez. Gai izan gara ekimen ezberdinak, jardunaldi ezberdinak, bilera ezberdinak aurrera eramateko, ikusiko dugu aurrerantzean nola joango den. Covid19 izena duen birus bat kudeatzea tokatu zaigu. Gustatuko litzaidake jakitea nola kudeatuko zen, hori bera, egoera hori bera, orain dela urte batzuk.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Buenas tardes. Yo simplemente matizar con respecto al expediente modificativo, hay una partida que corresponde a equipos de procesos de información que, gracias a la labor del servicio de informática de este ayuntamiento hemos conseguido poner en marcha el pliego para poder sacar a licitación la renovación de la megafonía, tanto del salón de Plenos, como de la sala de comisiones y poder continuar realizando actualizaciones, reformas y dotar de equipos más actualizados al ayuntamiento, que requiere



dotar de mayor consignación presupuestaria a esta partida en concreto.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros como comentamos en la comisión nos vamos a abstener, no vamos a entrar en lo de los modificativos porque bueno, se puede entender tanto el que no haya habido previsión como que.... Más que nada también decir que es verdad que se puede parar la actividad cultural, pero si se para la actividad cultural, que tampoco se podía prever con el tema del Covid, tampoco es que haya habido una previsión estupenda, pero bueno, eso vamos a decir, que todos somos humanos.

“En el tema de los equipos informáticos, como no, desde nuestro grupo ha sido una reivindicación que llevamos haciendo tiempo, no vamos a votar en contra. No vamos a impedir, pero nos vamos a abstener pues porque es lo que venimos manteniendo, por el tema de que no nos parece, no vamos a entrar, aguas pasadas no mueven molinos tampoco, pero un poco mostrar el descontento pero a la vez sin querer paralizar nada.”

Berriro ere, Zulueta jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Gure aldetik ulertuta eta Goenaga jauna ikusten dugu benetan nekatuta dagoela, baina, bueno, ez da hori guri kezkatzen gaituena. Guri udal aurrekontuaren kudeaketak, egoerak, kezkatzen gaitu. Hortik aurrera, animo eta ea hartzen duzun denbora deskantsatzeko.

“Esandakoari bakarrik gehituko nioke, zeren kontra gauden galderari erantzuteko, Kultura batzordean Mujika andreak oso ondo azaldu zuen gure udal taldearen iritzia, puntu horretan zehazki. Guk egiten dugun irakurketa orokorra da, esan duguna, ulertzeko nahiko erraza da. Urtarrila bukaeran urteko aurrekontua onartu da eta 6 pleno beranduago aldatu ditugu 3 milioi euro inguru eta horren erdia, milio bat eta erdi, gastuari dagokiona.

“Esaten ari gara, Covid-a kudeatzen ere badakigu, ez guk zehazki, baizik eta inguruko udaletxeetan egin delako eta, arazoak suertatu dira udaletxe guztietan, baina, Covid-ak ezin du izan aitzakia ezintasun guztiak zurrizteko.

“Egia da arazo asko suposatu dituela baina, urtarrilean aurrekontua egiterako orduan, ez dut nik sinesten hainbeste aldatu denik egoera hiru milioiko aldaketa egin behar izateko. Hemen beste gauza batzuetaz ari gara, saiatu zarete partida batzuk minimoetara eramaten gauza asko sartzeko eta ondoren udal aurrezkiari esker beste gauza asko egin ahal izatea eta hori da guk kritikatzeko duguna aurrekontuaren kudeaketari buruz.

“Hori horrela planteatu izan balitz hasieratik, ziurrenik beste maila bateko akordioak edo proposatuko genituzke, baina ezinezkoa da gure proposamenak ez onartzea esanez partidak oso ajustatuak daudelako eta ezin da euro bat bakar bat mugitu eta ondoren zifra dantza hau ikustea eta guzti honek ez du zerikusirik kultur jarduerarekin alde edo kontra gauden. Alde gaude noski. Hernaniko kultur programazioa ikusten duzu, EH Bildu programatzen ari da, kultur jarduerak sustatuz eta hori aurretik aurreikusita egiten da eta adostasun batzuekin egiten da eta ez dago inolako arazorik, hemen beste gauza batzuetaz ari gara.

“Elkarte gastronomikoei atek ireki behar zaizkie? Noski eta hori proposatu dugu eta kirol elkarteei? Noski eta horregatik diogu, kirol elkarteei ezarri zaizkien murrizketen kontra gaudela, zeren, aurten 2021. urtean dirulaguntzetan jarri zaizkien murrizketa ez dator bat justu egin behar den horrekin eta, berdin Gazte lokalarekin, esan dugu, ez da murrizketarako tartea, abar eta abar... ez da kontua gastatu behar den ala ez, noski, baina, modu ordenatu batean, plangintza bati lotuta eta norabide jakin batean.

“Norabide hori, zuek baduzue? Zuen plangintza pribatu horretan? Agian hori da. Nik uste dut askotan nabaritu dela ez zegoela oso akonpasatua. Guk oposizio bezala eta Andoingo lehen indar politiko bezala ez dugu horren informaziorik eta jakiten goaz astetik, astera, proposamenak jasotzen ditugun heinean eta horrela ezinezkoa da funtzionatzea. Hori da guk esandakoa. Zehazki, gaur proposatu dituzuen bi espediente horien inguruan, batean abstenitu egin ginen eta bestean kontra bozkatu genuen eta gaurko ezezkoak erantzuten dio kudeaketa ereduari, opazidadeari eta zuen jarrera itxiari. Beste guztia? Noski, egin behar da. Kultura sustatu behar da, esan izan dugu gainera ez soilik espektakuluen programazioan eta profesionali lagundu behar zaiela baina, baita ere, herriko kultur elkarteak, goxatuz, mimatuz eta espazioak eskeiniz eta gauzak elkarrekin eginez. Kirol elkarteei murrizketak ez aplikatuz, abar eta abar. Hori da egin behar dena eta hori da guk egingo genukeena. Uste dut nahiko jarrera zintzoa dugula.”

Goenaga jaunak erantzuten du:



“Berritio diot, gezurra mila bider errepikatuta ez da egia bihurtzen. Hernanira joaten zara, Villabonara joaten zara. Aurrekontua, udalak aurtengo duen aurrekontua, Bastero irekitzea kostatzen dena, aurreko urtean, orain dela bi urte, orain hiru, berdina da, disparatu egin da Basteroren erabilera, zergaitik? Asumitu behar izan ditugulako ez ohiko erabilera batzuk, ez joan Hernanira, ez izkutatu Villabonan, ez izkutatu Astigarragan, etorri Andoainera, datuak disparatu egin dira. Zergaitik? Gero eta gehiago erabili dugulako eta orain debatea da, Bastero irekia mantendu behar da, bai ala ez? Ni ziur nago Zulueta, esango bagenu Bastero itxi egiten dugu eta lixto, zu izango zinateke lehenbizikoa pankartan esanez Bastero ireki eta, horrela egin zenuten orain dela hilabete gutxi batzuk, esanez, elkarteentzako ireki behar zela, kultur elkarteak, soziedadeak, kirol elkarteak eta bat egiten dugu, gobernu talde honek erabaki du horrela egin behar dugula eta herritarren zerbitzura jarri behar dugula eta kasu honetan badirudi, ya kasketa dela, ya ez botatzea ez botatzearen... alde nago baino kontra bozkatuko dut. Zertara goaz? Ez joan Villabonara, ez joan Hernanira, Andoainen gaude. Aurrekontuaren aurreikuspen hori izan zen errealista, aurreko urtekoarekin alderatzen baduzu.... debaterik ez baduzu nahi, listo, bukatu da, punto.”

Zulueta jaunak erantzuten du:

“Ez, ez.Hemen esan da aurrekontua errealista dela, hiru milioi mugitu ditugunean 6 hilabetetan.”

Goenagan jaunak erantzuten du:

“Zehazki, Eragin enpresak daukan lizitazioa berdina da, prorroga baten ari gara, beraz, ezin duzu gaur hemen esan ari garenik gauza ezberdinak egien. Ez, ez, lizitazio horrek prezio bat dauka, esleipen horrek prezio bat dauka, beraz, gezurra gutxi, prezio hori finkoa da eta prezio horren zabalpen bat egin da, Zulueta.

“Nahi baduzu harira sartu, sartuko gara, baina ikusten dut ez duzula debaterako gairik nahi, beraz, ni ez nahiz tematuko, gobernu talde honek bai uste du, beharrak daudenean, beharrei erantzun behar zaiela eta behar horiei erantzuteko modifikazioak egin behar badira, ez garela lotsatuko, esango dugula, aizue aurreikuspen hauek ez dira bete edo bete dira eta beharra badago modifikazioa egingo dugu, bai Kultura eta baita beste arloetan eta Gazteri alorrean. Kirol alorrean egin dituzun murrizketa horien aipamenak ez ditugu batere konpartitzen.”

Zulueta jaunak erantzuten du:

“Tonoa altxatu dezakezu eta haserre plantak egin eta nahi duzuna, bainan, gezur bat mila aldiz errepikatu izanagatik ez da egia bilakatzen....eta ke gortina bat pasatzeagatik ez da atzekoa estaltzen. Etengabe ari zara gaia Basteroko eztabaidara eramaten eta ni ari naiz hitz egiten hiru milioiko mugimenduetaz. Esan nahi dut, hemen kudeaketari buruz ari gara eta zuek puntu bakar batera eramanez nahi duzue eztabaida, 50.000-100.000 eurotako aldaketa batetara, horri buruz, Mujika andreak Kultura batzordean defendatu izan du gure postura zein den, ez honetan bakarrik baizik eta kultura jardueren inguruan azken hilabeteetan egin den ibilbide guztiaz.

“Gure hausnarketa uste dut nahiko argi geratu dela, orokortasunari lotuta dago. 2021 urteko aurrekontua gaizki egin zen, hau diot nik, eta edozein teknikarik baieztatu dezake. Zergaitik egin zen horrela? Zuk diozu aurreikuspena gaizki egin zela eta nik esaten dut dagoeneko hori ez dugula sinesten zeren, hasi ginen Zerbitzuetako pabilioaren gastuarekin, erdia sartu zenuten eta konturatu ginen, ondoren plegu batzuk, eskailera mekanikoak eta orain gogoratzen ez dudanez beste bat...eta horrela, astetik astera joan gara partidak handitzen. Hori da gertatu dena eta Basterorekin gauza bera gertatu da.

“Guk diogu, 2021. urteko aurrekontua gaizki egin zegoen eta guzti hau baieztapen bat da, ekintza tangibleak ditugulako, hiru milioi euro mugitu ditugulako eta dagoeneko aurreikuspen bat ez dakidana zenbatekoa eta beste zenbait ekintza aurreikuspenean ez daudenak, beraz... horretaz ari gara.

“Zuk, aldiz, guztia zentratu nahi baduzu azken partida honetan zure esku dago...horretan ez gara sartuko. Gure jarrera nahiko argia da, koherentea azken hilabete honetan azaldu dugunarekin.”

Jarraian, Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Ya, pero, para eso también es importante que se digan las cosas como son. A ver. Tres millones no, 2.787.000 euros. De los cuales en inversiones son 1.703.000 euros, con lo cual no estamos hablando de eso. Los datos que dan no son reales una vez más, lo que hacen es confundir a la ciudadanía, y no es así. De los gastos que se han hecho, modificaciones, es 1.083.000 euros, para los cuales hay una factura de 248.392 euros que había que pagar a IBIUR, es decir, que si vamos descontando todo tiene su porqué y si este año,



el presupuesto de 2021 se ha hecho mal, que podemos asumir que se ha hecho mal, no tenemos ningún inconveniente, el del 20, 19, 18, 17, 16, 15, 14, 13 y 12 también se hicieron mal, es decir, en este ayuntamiento lo mismo que ocurre en todos los ayuntamientos, porque creo que no conocemos ninguno en el que no que ocurra se hacen modificativos de crédito a lo largo del año y, en los modificativos de crédito se van explicando los razonamientos, entendemos perfectamente que con algunos estén de acuerdo y con otros no y eso lo quieran defender, de ahí a decir que los presupuestos no se habían hecho bien y que no se tienen que hacer modificativos de crédito, lo siento, pero no lo vamos a comprar, porque, desde luego, como ha dicho el Sr. Goenaga y lo repetimos nosotros el pleno anterior y lo repetiremos en todos los plenos que haga falta, efectivamente, los presupuestos están para dar servicio a la ciudadanía y este ayuntamiento está para dar servicio a la ciudadanía y cualquier modificativo de crédito que hagamos para dar servicio a la ciudadanía tenga en cuenta que lo vamos a traer aquí y trataremos de sacarlo adelante.

“Ez dakit beste interbentziorik izango den. Orduan bozkatzera pasatuko gara.”

Zulueta jaunak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Bai, bai. Bestetan bere horretan uzten dut, baino gaurkoan esan diren zenbait gauza ez dira zuzenak. Zifrei dagokionez, gaur ez dut taula ekarri, baino, nik ere badut taula eta zifra horiek ez dira nire ateratzen zaizkidanak eta, gainera diozu IBIURreko faktura, noski, aurreikusitako beharrek, IBIURreko fakturak ez baditugu aurrekontuan jasotzen, sakez gaizki dago, orduan 19an... el mal de muchos... zuek ere egiten zenuten... orduan konparatzen dugu egoera ekonomikoa 2021. urtekoa eta 2015. urtekoarekin eta ez du zerikusirik.

“Guk behin eta berriro esan ditugu, bi gauza. Batetik, urte horietan, zu oposizioan zinela, urte horietan esaten zen, hau da aurrekontua eta aurrekontutik kanpo hau joango da ez delako sartzen eta oposizioak aurrekontu zirraborroa aurkezten zenean bazituen kreditu aldaketa espediente bidez bideratzeko proposamenak. Guztiek zuten mahai gainean. Hori horrela da eta zuek, zu eta zu, bertan zineten eta, bazenekiten eta fakturak, adibidez, IBIURrekoa kubrituko da dirua dagoenean, baina, hemen ez da horrela egin, 2019an ez zen horrela utzi, 2019an utzi zen aurrekontu bat eta gastu korrontea jasota zegoen, orduan, esan nahi dut bantiladorea martxan jartzeko zaletasunaren berri badut, baino, diot egoera bestelakoa da, egoera ekonomikoa jakin batean zuek beste bide baten hautua egin duzue eta hausten dituzue kontsentsuak maila horretan, hemen adostu genuen gerakina eta aurrezkoa zertarako erabiliko ziren, hori zirudien behintzat, nahiko adostasuna zegoela horretan eta ez dugu horrelakorik ikusten.

“Bueno, hori da, galdetzen dugu, gastu korrontea bermatuta dago? Bai, bai, bermatuta dago, hau izan da akatsa bat eta hori izan da bestea eta ikusten dugu ez dela horrela izan. Ez da gardentasuna egon. Diru eskasia egon daiteke, hori aurretik esan behar da. Aurrez esan behar da. IBIURreko faktura hau gerakinarekin ordainduko da, zeren ez dugu sartu, hori esan egin behar da eta ez da esan. Ez da esan. Zintzotasun falta bat egon da. 2015. urteko aurrekontua konparatu behar bada, testuinguruaren eta guztiarekin konparatu beharko dugu. Aurreko urteetatik jasotako egoera, aurrekontu prorrogatuak ziren ala ez, esan nahi dut testuinguru guztia alderatu behar da, ez egiten ziren kreditu aldaketak soilik. Nik ez dut gogoan otsaila eta ekaina artean horrelako trajina, baina bueno...”

Alkate andreak erantzuten du:

“Yo, de verdad, a veces dudo de que usted estuviera en el anterior equipo de gobierno, creo que conocían y conocen que tanto con IBIUR como con la Mancomunidad de Tolosaldea no es una cuestión de planificación, es una cuestión de cuando nos mandan ellos las facturas y, eso creo que ustedes lo deberían conocer, perfectamente además, o sea, no es una cuestión de que nosotros hagamos la planificación, si ellos no mandan la factura no se puede contabilizar, con lo cual no la podemos pagar porque no la tenemos. Y cuando llega, lógicamente hay que pagarla o, no la pagamos entonces, si llega más tarde decidimos que no la pagamos, bueno.

“Cuando ustedes hablan de que el gasto en el 2019, el gasto corriente, estaba recogido en los presupuestos, le tengo que recordar el último modificativo de crédito que ustedes hicieron en mayo o en abril de 2019? Pues por favor, mírelo también.”

Berriro ere, Goenaga jaunak erantzuten du:

“Nik bai, uzten badit Zuleta jaunak, eman duen ekonomia, azterketa ekonomikoa guzti horren ondoren,



uzten badit, gastu baten aurrean gabezia dagoenean, ez dago soluzio magikorik, Zulueta jauna, mailegu bat eskatzen da edo remanentetik hartzen da edo, batzorde batean entzun dudana egiten dugu, austeritate politikak aplikatu. Beraz, bat, remanentea badugu eta kapazidadea baldin badugu, nolabait, gure gabezia horiek asumitzeko, egin dezakegu, inbertsio maila hori asumitu, mantentzen saiatu edo batzorde batean esan zen bezala, aplicar, austeritatea, gutxitu, murriztu, Bilduk beraz, ez baldin badu nahi modifikaziorik edo mailegurik nahi, zer nahi du? Austeritate politikak? A edo B, esque, esque, ez dago, gaur hemen ekartzen dira bi modifikazio bozketara eta, alde zaude edo kontra zaude, baina, ezin da esan gero, mantendu ezazue zerbitzu publikoen maila, mantendu ezazue herritarrek eskatzen duten maila eta, ez, ondoren, gastu hori ez dut habilitatzen eta, dirua ez da zerutik etortzen. Mailegua eskatzen dut edo remanentetik etortzen da eta kasu honetan, zorionez, Andoingo udalak kapazidadea dauka, kapazidadea dauka eta, nik, batzorde batean entzun dut, austeridadearen asunto hori eta bildur pixka bat ematen dit, bildu pixka bat ematen dit, eh., eh..., uste dudalako krisi egoeretan erakundeek izan behar dutela orduan inoz baino eraginkorragoak eta inbertsio egingarriak egitea. Eta ez prezisamente atzera egin eta austeritate politikak aplikatu. Beraz, mailegua ez badugu eta kreditua ez badugu nahi, zer nahi dugu? Uste dut herritarrei argi hitz egin behar diegula, mantentzen ditugu gure zerbitzu publikoen kalitatea eta herritarrengan inbertitzen dugu edo murrizten ditugu gure ahalmenak.”

Zulueta jaunak erantzuten du:

“Esan genizuen guk, kendu 20.000 euro mural batetik, ezer aportatzen ez duena eta ez murriztu Gaztelokaletik edo ez kendu....zeren austeritatea aplikatu duzue, Gaztelokalean zehazki, Ludotekan austeritatea aplikatu duzue, ez zaizue entzutea gustatzen baina egin dezute. Kirol elkarteekin austeritatea aplikatu duzue, murriztu egin diezue dirulaguntza, eskaera batzuei ezezkoa erantzun zaie, irizpide politikoak bitarte. Behar batzuk dituzte eta ezezkoa eman zaie, ez dagoela. Hautu bat egin duzue eta partida batzuen alde egin duzue beste batzuen kaltetan.

“Guk esan genizuen zeintzuk ziren superfluoa iruditzen zitzaizkigun partidak eta zeintzuk indartu behar ziren eta zuek ez zenuten horretaz hitz egin nahi izan. Guk esan dugu, propaganda gutxiago eta benetako komunikazio gehiago, kendu su artifizialak eta jarri mami gehiago, uste dut aurrekontuaren inguruan eman ditugula gure iritziak eta zenbakiak ere berdintzeko moduan proposatu genituen. Austeritatea ez, beste gauza bat da kudeaketan hobetu egin daitekeen edo ez. Baita ere, departamentu barruan ere, baina austeritatea ez, kontrakoa, gastatu behar da.

“Beste gauza bat, Andoingo udala egoera onean dago eta baliatu behar da, aurrezkoa dauka Goenaga jauna, eta badakizu ez dela irtenbide ona aurrezkoa erabiltzea gastu korrontea estaltzeko, inbertsioak egin beharra iristen denean ez da izango eta zorpetzea beste irtenbiderik ez dugu izango.

“Zuekin adostuta genituen gauzak, gerakina inbertsio estrategikoetarako, uste dut irizpide inportantea dela, beti egon daiteke gastuak estaltzeko beharra, baina gauza larria da gastua gerakinetik estaltzea, egiten ari zaretena, ez du zerikusirik eta horretan ez gaituzue konbentzitu.

“Austeritateari buruz, berriz, aplikatu duzue, hainbat eta hainbat partidetan eta hainbat eta hainbat zerbitzuetan.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	50.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	50.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>100.000,00</b>





## FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	100.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>100.000,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

### 3. 7.16 eranskinaren aldaketa, jarduera fisiko eta kiroleko udal zerbitzuen tasak.

Konstituzioko 140. Artikuluak udalerrii aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarrii buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerrii bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik, jardura Fisiko eta Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2021.06.29(e)ko eta Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021.07.13(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Mendo jaunak, Jarduera Fisikoa eta Kiroletako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Para el curso de actividades físico-deportivas organizado desde el Servicio de Actividades Físicas y Deportes municipal, entre otras novedades se han incorporado dos nuevos servicios que requieren la aprobación de las nuevas tasas. En este sentido, hoy traemos para su aprobación las siguientes tasas. Primera, entrenador personal, 30 euros por sesión de 50 minutos y la otras el programa de entrenamiento, 90 euros por trimestre.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. 2021-2022 ikasturterako bi tasa berri hauek onartzea
  - a. Entrenamendu pertsonala.....30,00.-€/50 minutuko saioa
  - b. Entrenamenduen programa.....90,00.-€/hiruhilabete

2.-Administrazio-espedita jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedita aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.-Espedita jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

### 4. Interes berezikoak inzendatzeko Ikastolak egingo dituen obrak (igogailua).

Ikusirik Aitor Iriondo Ansak Jaunak Andoingo Aita Larramendi Ikastolaren izenean 2021.07.08ko idatzia, eta honen bidez eskatzen da Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergatik %50 hobaria eta Kontu-hartzaileak indarrean dauden Ordenantza Fiskaletan araututakoaren berri eman ondoren.

Horrenbestez, ikusirik Ekonomia eta Ogasuna Batzordeak 2021.07.13an emandako aldeko irizpidea.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, beti egiten da, lehenik eta behin, gaur deklaratu da interes publikoa eta gero aplikatu litzaioke deskontua. Ez dakit galderaren bat dagoen?”

“Como se suele hacer siempre, es declarar de interés público unas obras que se van a hacer para poder aplicar un descuento en los impuestos.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta



Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Udal intereseko eta erabilerakotzat jotzea, hori justifikatzen duten arrazoi sozialak tarteko direlako.
  - Txistokiko eraikinean igogailua
- 2.- Behin Udalbatzak erabakia hartu ondoren, tokiko zergetan hobaritzeko eskaera berriro aztertu beharko du Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde Irizpenemaileak.

**5. Onartzea, behin betiko izaeraz, Andoingo Udaleko lanpostuen lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpeak proposmena.**

Ikusirik Andoingo Udaleko lanpostuen lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak hasierako izaeraz onartzen duen 2021eko apirilaren 29a(e)ko Osoko Udalbatzaren erabakia.

Kontuan izanik jendaurrean egon den bitartean, Elkartuk eta LABen izenean diharduen, Lurdes Arruti Landa andk. alegazioa aurkeztu dituztela maiatzaren 14an lehenengoak eta ekainaren 11ean bigarrenak.

Ikusirik, Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2021eko uztailaren 1an egindako txostena.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzorde Irizpenemaileak 2021eko uztailaren 06ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, Langilegoko Zinegotzi Ahalduak hartu du hitza, honakoa esateko:

“El pasado 29 de abril se aprobó inicialmente este reglamento, en el plazo de exposición pública se han presentado dos alegaciones, una de la Asociación Elkartu y otra de la representación del sindicato LAB. Teniendo en cuenta el informe elaborado por la Técnico de Administración General del Departamento de Personal y Prevención, del cual se determina que se estima la alegación presentada por la Asociación Elkartu, que se recoge en el reglamento y en base a ese mismo informe se desestima la alegación presentada por el sindicato LAB.

“Por todo ello, se somete a la aprobación del pleno, con carácter definitivo, la propuesta de criterios para la constitución y gestión de las bolsas de trabajo para los puestos de trabajo del ayuntamiento de Andoain.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozkatarra jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Onestea Elkartuk aurkeztutako alegazioak Araudiko proposamen berrian jasotzen diren testuak barne.
- 2.- Ezestea LABek aurkeztutako alegazioak, 2021eko uztailaren 1ean Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotzen diren arrazoiak direla eta.
- 3.- Behin betiko onartzea Andoingo Udaleko lanpostuen lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak.
- 4.- Dagokion iragarkia eta aipatutako Araudiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) Udalaren web-orrian argitaratzea.
- 5.- Erabaki honen berri ematea alegazioak aurkeztu dituztenei eta Antolakuntza eta Barne Eraentza lantsailari.

**6. Onartzea, hasierako izaeraz, Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketara arautzen duen udal ordenantza proposamena.**

